

**ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO DE NAVARRA Y
LA R.A.L.V./EUSKALTZAINDIA
(Agiria/Acta)**

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak hitzarmen berezitua sinatu dute gaur, Iruñean. Datozen lau urteetan indarrean izango den dokumentu horrek bi erakundeen arteko elkarlanaren marko orokorra planteatzen du eta, gaurko ekitaldian adierazi denaren arabera, lan horren xehetasunak berehala gauzatuko den aurtengo protokoloan markatuko dira. Izan ere, protokoloak bi atal izango ditu, hots, Akademiaren gastu orokorrei dagokiena, eta urtez urte egin beharreko hizkuntza mailako lanak zehaztuko dituena. Akademiaren izenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu du eta Foru Gobernuaren izenean Jesus Laguna, Kultura eta Hezkuntza sailburuak.

1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau diputazioen babespean sortua da Euskaltzaindia eta, Nafarroako Gobernuak, 18/1986 Foru Legearen 3. artikuluan, Euskararen Erret Akademia/Euskaltzaindia, euskarari dagokionez, Kontsulta Erakunde ofiziala dela aitortzen du. Foru Lege horren arabera, bi erakundeen arteko harremanak euskararen ikerketa, garapena eta sustapenerako atekak zabaldu zituen, euskararen eremu guztietan, bereziki Nafarroan.

1918az geroztik, baina, egoera guztiz aldatu delakoan, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekiko *hitzarmena* oraingo momentura egokitu nahi izan du eta hala adierazi zion Akademiako Zuzendaritzari. Hori dela eta, azken hilabeteetan bi erakundeen arteko hainbat lan-bilera egin dira; gaur sinatu den hitzarmena, horren emaitza baino ez da. Edozein modutan ere, hitzarmena ez da inoiz hautsi, bai ordea birmoldatu eta, esan bezala, era desberdinean planteatu. Hitz eginez heldu dira akordio batera Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua eta esan behar da gauzatze prozesuan Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak berezko garrantzia izan duela.

Hitzarmenak, zenbait lan-arlo garatzen lagunduko du, hala nola, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Hiztegi Batua*; Toponimia, Onomastika eta Dialektologiazko ikerketa; baita euskal literatura jantzia zein herrikoien azterketa ere. Horietan guztietan Nafarroako euskarak eta haren inguru sozial zein kulturak izan duten ekarria funtsezkoa izan da.

Finean, honako akordioak Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hartu-emanak sendotzen ditu, Nafarroako Foru Komunitatean euskararen presentzia eta protagonismo nagusia errotu aldera.

Besterik Hizkuntzaren Akademia den aldetik, euskara du helburu Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko *hitzarmena* euskararen one-rako izango dela zinez uste du.

* * *

El Gobierno de Navarra y Euskaltzaindia han firmado hoy en Pamplona un *convenio* particular que tendrá vigencia durante los próximos cuatro años y plantea el marco general de colaboración entre ambas instituciones. Tal y como ha quedado reseñado en el acto celebrado hoy, en breve plazo se concretarán los detalles del acuerdo, que quedarán plasmados en el protocolo correspondiente a este ejercicio. El citado protocolo constará de dos apartados básicos: por un lado, se recogen los gastos generales de la Academia; por otro, se especificarán las actividades que, en materia lingüística, desarrollará Euskaltzaindia año a año. El acuerdo ha sido refrendado por el presidente de Euskaltzaindia, Jean Haritschelhar, y por el consejero de Educación y Cultura del gobierno navarro Jesús María Laguna.

En 1918 se creó Euskaltzaindia bajo los auspicios de las diputaciones de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra. Posteriormente, y en lo que concierne a la comunidad navarra, la Ley Foral 18/1986, en su artículo tercero, viene a cumplir las expectativas marcadas para Euskaltzaindia como institución consultiva oficial del euskera en Navarra y permite el inicio de una relación bilateral que ambas instituciones consideran puede ser fructífera para la investigación, desarrollo y promoción del euskera en la totalidad de los territorios de lengua vasca y en especial de Navarra.

En los últimos meses, ambas partes han mantenido una ronda de reuniones, fruto de las cuales se presenta este convenio. Ello no quiere decir que la relación se haya roto, sino que se ha modificado para introducir un nuevo planteamiento. El consenso se ha basado en el diálogo, y en el mismo la Dirección de Política Lingüística del Gobierno de Navarra ha tenido especial protagonismo.

El nuevo acuerdo permitirá relanzar temas importantes en el desarrollo de áreas como la elaboración de *Orotariko Euskal Hiztegia/Diccionario General Vasco*, *Hiztegi Batual/Diccionario Unificado*, los estudios de toponimia, onomástica y dialectología en lengua vasca y la investigación de la literatura culta y popular, en los que la aportación del euskera de Navarra y su entorno cultural y social resultan de importancia capital.

En definitiva, el presente acuerdo supone la consolidación del marco de las relaciones entre el Gobierno de Navarra y Euskaltzaindia, para continuar en el progresivo desarrollo de la presencia y protagonismo del euskera en la Comunidad Foral de Navarra. Euskaltzaindia considera que el *convenio* será beneficioso para el euskera.

ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO DE NAVARRA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

INTERVIENEN

De una parte, el Excmo. Sr. D. JESÚS M.^a LAGUNA PEÑA, Consejero de Educación y Cultura del Gobierno de Navarra, en nombre y representación del Gobierno de Navarra.

De otra parte, el Excmo. Sr. D. JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en nombre y representación de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

Teniendo la capacidad suficiente para otorgar el presente *Acuerdo*,

EXPONEN

Primero.—Que la Diputación Foral de Navarra, además de ser una de sus instituciones fundadoras, ha valorado la labor que, desde su fundación en 1918 y hasta la actualidad, ha realizado la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en beneficio y desarrollo del vascuence.

Que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia es una Institución regulada por Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, y posteriormente por Real Decreto 272/2000, de 25 de febrero, por el que se modifican los estatutos de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

Segundo.—Que la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vascuence establece en su artículo 1.º.2 los objetivos esenciales de la misma relativos al conocimiento, uso, recuperación, desarrollo, fomento, uso y enseñanza, con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto; y de *acuerdo* a la realidad sociolingüística del vascuence en Navarra.

Tercero.—Que la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vascuence establece en su artículo 1.º.3 que las variedades del vascuence serán objeto de especial respeto y protección en Navarra.

Cuarto.—Que la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vascuence establece en su artículo 3.3 el carácter de Institución consultiva oficial a efectos de establecimiento de normas lingüísticas y en lo que al vascuence se refiere, de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en Navarra.

Que, igualmente, la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vascuence establece en el artículo 8.2 la actuación de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en materia de toponimia como Institución emisora de informes relativos a aquella.

Quinto.—Que ambas partes, Gobierno de Navarra y Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, reconocen y aceptan el marco legal vigente que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma y desarrollo de este Acuerdo y de cuantas iniciativas lo complementaran.

En su virtud,

ACUERDAN

Primero.—Objeto del Acuerdo

1. El presente Acuerdo tiene por objeto establecer las bases generales de colaboración entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y regular el marco de compromisos tanto financieros como materiales que los firmantes asumen para posibilitar la actividad de la Institución, tanto la de carácter general como la que a Navarra de forma específica se refiere.

Segundo.—Vigencia del Acuerdo

La vigencia del presente Acuerdo se prevé para un período de cuatro años, siempre y cuando exista crédito presupuestario suficiente y adecuado para el objeto del mismo en los Presupuestos Generales de Navarra.

Sin perjuicio de lo establecido en el presente Acuerdo Marco, anualmente se suscribirán los sucesivos Acuerdos que, unidos al presente, formarán parte integrante del mismo, y serán en los que se concreten las obligaciones anuales a asumir por los intervinientes.

Tercero.—Compromisos de carácter institucional que asumen el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia

El Gobierno de Navarra y La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia asumen los siguientes compromisos:

3.1. De carácter institucional:

3.1.1. Respetar en todo momento y en todas las actuaciones la personalidad y estatus jurídico de la Comunidad Foral de Navarra y de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, así como las disposiciones legales que regulan su funcionamiento, tanto en lo que a actuaciones propias del Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia se refiere, como a las actuaciones de aquellas otras instituciones u organizaciones en las que el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia participen.

3.1.2. En caso de desacuerdo entre ambas instituciones, el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, independientemente de las acciones legales que pudieran entender les correspondieran realizar, deberán presentar en la Comisión de Seguimiento que establece este Acuerdo la causa de la discrepancia para conocimiento y valoración en la citada Comisión.

Cuarto.—Compromisos de carácter general que asume la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia

4.1. De carácter presupuestario, económico y financiero:

4.1.1. Presentación de sus presupuestos provisionales anuales al Gobierno de Navarra. En tales presupuestos deberá especificarse:

a) Presupuestos ordinarios:

a.1. Composición y costo de la plantilla de Euskaltzaindia. Se referirán de modo desglosado al personal propio de la Institución no adscrito a programas ni subprogramas y a las retribuciones y/o dietas, en su caso, de los académicos.

a.2. Gastos de funcionamiento de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia: gastos de oficina, comunicaciones, gastos de desplazamiento, gastos de funcionamiento de servicios, dietas, gastos de mantenimiento y reparaciones ordinarias, etc., que no puedan ser atribuidos de modo específico a programas o subprogramas.

a.3. Gastos de capital, inversiones reales de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia: mobiliario y maquinaria de oficina, máquinas de escribir, fotocopiadoras, ordenadores, etc., que no puedan ser atribuidos de modo específico a programas o subprogramas.

a.4. Otros gastos ordinarios de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia no imputables de modo específico a programas o subprogramas.

b) Presupuestos por programas:

b.1. Presupuestos de los programas y subprogramas que ya se han puesto en marcha con desglose de los gastos de personal de investigación contratado y becarios, de funcionamiento y de capital imputables al programa o subprograma, pero que no son estructurales de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

b.2. Presupuestos de nuevos programas y subprogramas que se pretenden iniciar en el ejercicio con idéntico desglose al de la letra a) anterior.

4.1.2. Al finalizar el año, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia presentará al Gobierno de Navarra tanto la documentación contable que registre la situación económico-financiera de la Entidad al final del ejercicio y el balance de situación, como la liquidación de presupuestos del año, tanto ordinarios como por programas.

Asimismo, presentará memoria justificativa de la aplicación dada a los fondos percibidos del Gobierno de Navarra y, en su caso, adjuntará los justificantes originales o fotocopias compulsadas relativos a los gastos ocasionados por la actividad desarrollada.

Esta información se deberá aportar antes del 28 de febrero del siguiente año, acompañada de cuanta información sea pertinente al respecto.

4.2. De carácter material y de actuación:

4.2.1. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia presentará un plan anual de actuación de los programas y subprogramas que se realicen en el correspondiente ejercicio con sus especificaciones pertinentes.

Dicho plan de actuación será presentado junto con los presupuestos provisionales del año correspondiente. Si se tratase de planes plurianuales, se especificará la parte del año que corresponda.

4.2.2. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia remitirá al Gobierno de Navarra información acerca de los programas y subprogramas a realizar, así como de cuestiones económicas referentes a los mismos. Para ello, y entre otras medidas:

a) Remitirá al Gobierno de Navarra informes tanto de su funcionamiento interno como de sus actuaciones y resultados obtenidos en el desarrollo de los proyectos, según se especifique para cada programa en el Acuerdo anual correspondiente.

Los informes económicos serán semestrales.

b) Facilitará, asimismo, cuanta información complementaria le sea solicitada por el Gobierno de Navarra.

4.3. Otros compromisos:

4.3.1. La Real Academia de la Lengua Vasca/Exuskaltzaindia informará a la Comisión Técnica que se crea en el presente Acuerdo de cuantas incidencias supongan interrupción del normal desarrollo de las actividades previstas en el plan de actuación y prestará desinteresadamente cuanta asistencia se precise para la interpretación de los informes y memoria de los programas y proyectos de investigación.

4.3.2. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia permitirá el acceso a sus servicios de estudio e investigación a todos aquellos investigadores navarros que, previo cumplimiento de los requisitos a tal efecto establecidos con anterioridad por el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, así lo deseen.

4.3.3. Podrá colaborar con las Universidades, tanto públicas como privadas, de Navarra que lo requieran en la formación de investigadores en materia lingüística, relativa al vascuence, si así lo solicitaren aquellas a través de los respectivos Rectores y, en su caso, a través de los Acuerdos correspondientes.

4.3.4. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia podrá prestar al Gobierno de Navarra sus servicios como órgano consultivo en lo referente al vascuence conforme a lo establecido en las leyes y demás disposiciones vigentes en Navarra.

Quinto.—Compromisos del Gobierno de Navarra frente a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia

5.1. El Gobierno de Navarra se compromete a velar por la efectiva asunción de las medidas necesarias que hagan posible la consignación nominativa en las correspondientes normas forales presupuestarias de carácter anual, de la dotación necesaria a los efectos de conceder a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia las ayudas que posibiliten la instrumentalización de lo previsto en el presente *Acuerdo*.

5.2. El Gobierno de Navarra se compromete a estudiar, a petición de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, la asignación a esta Institución de los funcionarios de su plantilla a fin de realizar los trabajos que ambas instituciones determinen, relativos al vascuence en Navarra.

Sexto.—Procedimiento

6.1. Con la estructura que se ha mencionado en la cláusula tercera, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia presentará a la Comisión de Seguimiento que se prevé en el presente *Acuerdo* sus presupuestos provisionales anuales con anterioridad al 15 de noviembre de cada año natural. A este

documento se adjuntará toda la información preceptiva que, asimismo, se menciona en aquella cláusula.

6.2. La Comisión de Seguimiento, en sesión ordinaria que habrá de celebrarse con anterioridad al 20 de enero siguiente, estudiará los documentos citados y establecerá la propuesta de fondo presupuestario correspondiente al año siguiente de acuerdo con las posibilidades presupuestarias.

Asimismo, podrá incorporar nuevas propuestas a las existentes.

6.3. Tanto el fondo presupuestario como los programas y subprogramas que se financien y que, por consiguiente, constituyen obligaciones de realización concreta para la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia para el ejercicio siguiente, formarán parte de la colaboración anual que se adoptará por las partes una vez sean conocidas y definitivas las cifras subvencionables.

6.4. Cada año el devengo de las subvenciones se realizará, siempre que lo permita el cumplimiento de los trámites administrativos pertinentes, de la siguiente manera:

- La primera mitad del total en el plazo de un mes a partir del reconocimiento de las ayudas para cada ejercicio.
- La segunda mitad del total en el mes de junio.

6.5. De conformidad con la legislación vigente, con anterioridad a la suscripción del presente Acuerdo, así como con anterioridad a la percepción de los fondos públicos que se especifican en las cláusulas del presente *Acuerdo*, la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia aportará la documentación acreditativa de estar al corriente de las obligaciones tributarias así como de los pagos de la Seguridad Social que le corresponden.

Séptimo.—De la Comisión de Seguimiento:

7.1. Firmado el presente Acuerdo, se nombrará en el plazo de un mes una Comisión de Seguimiento para asegurar la debida realización y coordinación de lo establecido en el mismo.

7.2. La Comisión de Seguimiento estará formada por los siguientes miembros:

- a) El Director General de Universidades y Política Lingüística del Gobierno de Navarra, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.
- b) El Director del Servicio de Planificación, Investigación y Desarrollo Lingüístico, o persona en quien delegue, que actuará como Vocal.
- c) El Jefe de la Sección de Desarrollo Lingüístico, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario de la Comisión.

- d) El Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.
- e) El Secretario de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.
- f) El Tesorero de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, o un representante designado por el mismo, que actuará como Vocal.

Asimismo, deberá ser convocado y podrá asistir a las sesiones, con voz pero sin voto, el Delegado en Navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

7.3. La Comisión de Seguimiento, además de las funciones generales de coordinación y control de la ejecución de este Acuerdo que le son asignadas, tendrá las específicas siguientes:

- a) Decidir si la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia está realizando satisfactoriamente y dentro de plazo los trabajos convenidos.
- b) Si los representantes del Gobierno de Navarra así lo considerasen, presentar a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia su opinión acerca de las necesidades y/o prioridades en el campo del «corpus planning» general y relativo a Navarra.
- c) Proponer cuanto se refiera a la publicación de los resultados de los programas y subprogramas de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia que hayan sido subvencionados por el Gobierno de Navarra.
- d) Proponer el monto total anual del fondo presupuestario a asignar a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia según lo establecido en este Acuerdo.
- e) Procurar que el pago de las aportaciones indicadas a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia se realice en el tiempo y forma debidos.
- f) Asegurar y velar, dentro de su ámbito, por el respeto de los derechos y deberes que corresponden a los firmantes del *Acuerdo*.
- g) Nombrar una Comisión Técnica encargada de recibir y analizar los informes respectivos presentados por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, así como los balances anuales.
- h) Introducir, en su caso, nuevas propuestas.

7.4. El quorum para la válida constitución de la Comisión de Seguimiento será el de la mayoría de sus componentes.

7.5. La Comisión de Seguimiento adoptará sus acuerdos, siempre que sea posible, por unanimidad. En caso de discrepancia, serán adoptados por mayoría.

En caso de empate decidirá la votación el voto de calidad del Presidente.

7.6. Al cabo del año se realizarán dos reuniones como mínimo. Además de las señaladas, el Presidente de la Comisión de Seguimiento, o a petición, como mínimo, de dos miembros, podrá convocar en el plazo máximo de un mes, una reunión extraordinaria de la citada Comisión.

Octavo.—De la Comisión Técnica

8.1. Esta Comisión estará compuesta de cuatro miembros nombrados por la Comisión de Seguimiento, dos por cada una de las partes firmantes del Acuerdo. Para esta Comisión se nombrarán representantes con conocimientos tanto técnicos como económicos de los trabajos, con el objeto de realizar un adecuado seguimiento de los diferentes programas y subprogramas.

8.2. Son funciones específicas de la Comisión Técnica:

a) Recibir y analizar tanto los planes anuales de actuación como los informes respectivos presentados por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. A tal efecto se realizarán, como mínimo, dos reuniones al año.

b) Siempre que se considere necesario, y contando con la aprobación de la Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, celebrar reuniones con los grupos de trabajo de los diferentes programas y subprogramas y, entre otras cosas, realizar una evaluación provisional de los programas y subprogramas acordados y revisar in situ la situación del balance anual.

c) Llevar a cabo el análisis del balance anual.

d) Presentar a la Comisión de Seguimiento toda la información e informes evaluativos que se consideren necesarios.

8.3. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia podrá presentar, en su caso, las alegaciones que considere pertinentes a los informes de la Comisión Técnica.

Noveno.—Causas de resolución del *Acuerdo*

El presente Acuerdo podrá resolverse cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

a) Mutuo acuerdo entre las partes suscribientes.

b) Denuncia motivada de una de las partes.

Décimo.—Reintegro de cantidades

El incumplimiento del presente *Acuerdo* o utilización para otros fines de la cantidad concedida implicará la suspensión de pagos con la obligación de

reintegrar las cantidades obtenidas por tal concepto a la Tesorería del Gobierno de Navarra, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

El pago de los derechos, cánones, tasas, impuestos, compensaciones e indemnizaciones a que diere lugar el incumplimiento del presente Acuerdo, así como la obtención de todos los permisos y licencias para su ejecución, serán llevados a cabo por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

Undécimo.—Naturaleza del *Acuerdo*:

El presente *Acuerdo* tiene naturaleza administrativa, correspondiendo a la Comisión de Seguimiento la interpretación de su contenido. Las cuestiones derivadas de esta interpretación serán, en última instancia, conocidas y resueltas, en contencioso-administrativos, por los tribunales competentes.

Duodécimo.—Responsabilidad de la gestión del *Acuerdo*:

A la Dirección General de Universidades y Política Lingüística, como responsable de la gestión de este *Acuerdo*, corresponde:

- a) Convocar las reuniones de la Comisión de Seguimiento.
- b) Dirigir la Comisión Técnica.
- c) Mantener con la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia continuas relaciones referentes a la gestión del *Acuerdo*:
- d) Levantar las actas de las reuniones, custodiar el material y realizar las funciones inherentes a la secretaría del *Acuerdo*.


Decimotercero.—Final

Para la debida constancia de lo convenido y con la expresa declaración de su cumplimiento por las partes, se firma y rubrica en todas sus páginas, el presente documento por triplicado ejemplar,

En Pamplona, a 27 de junio de 2002



Jesús Laguna Peña,
Consejero de Educación y Cultura
del Gobierno de Navarra



Jean Haritschelhar Duhalde,
Presidente de la Real Academia de
la Lengua Vasca/Euskaltzaindia

NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *HITZARMENA*

ALDERDIEK

Batetik, JESÚS MARÍA LAGUNA PEÑA jauna, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura kontseilaria, Nafarroako Gobernuaren izenean eta haren ordezkari.

Bestetik, JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiaren izenean eta haren ordezkari.

Biok *Akordio* hau hartzeko behar den gaitasuna dutelarik,

AZALTZEN DUTE

Lehenbizi.—Nafarroako Diputazioak, Euskaltzaindia fundatu zuten erakundeetako batek, on iritzi diola Euskaltzaindiak, 1918an sortu zenetik orain arte, euskararen alde eta mesede egin izan duen lanari.

Euskaltzaindia otsailaren 26ko 573/1976 dekretuak arautu zuela, zeinak aitormena eman zion Euskaltzaindiari, eta bai ondoren otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuak ere, zeinak Euskaltzaindiaren estatutuak aldatu zituen.

Bigarren.—Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak bere 1.2 artikuluan Euskaltzaindiaren funtsezko helburuak ezartzen dituela, euskara jakin, erabili, berreskuratu, garatu, bultzatu eta irakastearen gainean, beti ere inor behartu gabe, pausoz pauso, eta errespetuz, eta Nafarroako errealtate soziolinguistikoaren arabera.

Hirugarren.—Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak 1.3 artikuluan ezartzen du Nafarroako euskalkiek babes eta errespetu berezia izanen dutela.

Laugarren.—Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak 3.3. artikuluan ezartzen duela Nafarroan Euskaltzaindia izanen dela kontsultarako erakundea hizkuntza arauak ezartzerakoan eta euskarari buruzko gaietan.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak 8.2 artikuluan ezartzen duela Euskaltzaindia izanen dela toponimia gaien gaineko txostenak jaulki behar dituen erakundea.

Bosgarren.—Bi alderdiek, bai Nafarroako Gobernuak eta bai Euskaltzaindiak gaurko lege barrutia aitortzen eta onartzen dutela, zeina baita alderdiek *Akordio* hau eta haren osagarri izanen diren guztiak sinatu eta garatzeko duten gaitasunaren oinarri eta baldintza.

Hori horrela,

HITZ HARTZEN DUTE

Lehenbizi.—Akordioaren helburua

1. Akordio honen helburua da oinarri orokorrak ezartzea Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanerako, eta bi sinatzaileok beren gain hartzen dituzten obligazio finantzario eta materialak arautzea, Euskaltzaindiak jardun ahal izan dezan, bai bere esparru orokorrean eta bai berariaz Nafarroari dagokion zatian.

Bigarren.—Akordioaren indarraldia

Akordio honek lau urteko indarraldia izanen du, betiere Nafarroako aurrekontu orokorretan kreditua badago, behar adinakoa eta *Akordioaren* xederako aproposa.

Akordio honetan ezartzen dena ezertan galarazi gabe, urtero *Akordioak* sinatuko dira, zeinak oraingo honi erantsi eta haren osagai izanen baitira eta zeinetan zehaztuko baita urtez urte zer obligazio hartu behar dituzten beren gain alderdiek.

Hirugarren.—Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak beren gain hartzen dituzten konpromiso instituzionalak

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak honako konpromiso hauek hartzen dituzte beren gain:

3.1. Konpromiso instituzionalak:

3.1.1. Uneoro eta ekintza guztietan, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskaltzaindiaren nortasun eta estatus juridikoa errespetatzea, eta bai haien jardunbidea arautzen duten lege xedapenak ere, bai Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren beraren egitateetan eta bai Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindia partaide diren beste edozein erakunde eta instituzioren ekintzetan.

3.1.2. Bi erakundeon artean desadostasunik sortzen bada, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindiak Akordio honek ezartzen duen Jarraipen Batzordean azaldu beharko dute desadostasun horren arrazoia, hark ezagutu eta baloratu dezan, nahiz eta bestetik uste duten legezko ekintzaren bat hastea zilegi dutela.

Laugarren.—Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen konpromiso orokorrak

4.1. Aurrekontu, diru eta finantzei dagozkienak.

4.1.1. Urteroko aurrekontu behin-behinekoak Nafarroako Gobernuari aurkeztu beharra, alderdi hauek zehazturik:

a) Aurrekontu arruntak:

a.1. Euskaltzaindiaren langile taldearen osaera eta kostua. Xehaturik azalduko dira Institutuzioaren langile propioak, inongo programa edo azpiprogramari atxiki gabekoak, eta bai, hala bide denean, euskaltzainen soldata edo dietak ere.

a.2. Euskaltzaindiaren jardunbide gastuak: bulego, komunikazio, bidaia gastuak, zerbitzuek jarduteko gastuak, dietak, mantentze eta konpontze arruntetarako gastuak eta abar, berariaz inongo programa edo azpiprograma bati ezin egotzi zaizkionak.

a.3. Kapital gastuak, Euskaltzaindiaren inbertsio errealak: altzariak eta bulego makinak, idazmakinak, fotokopiadarak, ordenagailuak eta abar, berariaz inongo programa edo azpiprograma bati ezin egotzi zaizkionak.

a.4. Euskaltzaindiaren beste gastu arrunt batzuk, berariaz inongo programa edo azpiprograma bati ezin egotzi zaizkionak.

b) Programen araberako aurrekontuak:

b.1. Lehendik abiatuak dauden programen aurrekontuak, zehazturik horietatik zein zati dagokien programa edo azpiprograma jakin hartako langile ikertzaileen eta bekadun kontratatuen gastuei, jarduteko gastuei eta kapital gastuei, Euskaltzaindiaren gastu estrukturalak izan gabe.

b.2. Kasuko ekitaldian hasteko asmotan diren programa eta azpiprograma berriak aurkeztea, aurreko a) letran zehaztu beharrekoa zehazturik orain ere.

4.1.2. Urtea bukatzean Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio ekitaldia bukatzean Entitateak zuen diru eta finantza egoera eta haren balantzea, eta urteko aurrekontuen likidazioa, arruntak izan edo programakoak.

Orobat, Euskaltzaindiak *Oroit-idazki* bat aurkeztuko dio Nafarroako Gobernuari, eta bertan zehaztuko nola erabili dituen Nafarroako Gobernutik jaso dituen fondoak, eta, hala behar denean, aurkeztuko ditu egindako jarduerak sortu dituen gastuen frogagiri jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak ere.

Informazio hori hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da, ardurako beste informazio guztiarekin batera.

4.2. Konpromiso materialak eta ekintzakoak:

4.2.1. Euskaltzaindiak urteroko ekintza plan bat aurkeztuko du kasuko ekitaldian egiten diren programa eta azpiprogrametarako, behar bezain zehazturik.

Ekintza plan hori kasuko urtearen aurrekontu behin-behinekoekin batera aurkeztuko da. Urte bat baino gehiagotako plana bada, tokatzen den urtean egin beharreko zatia zehaztuko da.

4.2.2. Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuari informazioa bidaliko dio egin beharreko programa eta azpiprogramen gainean, eta bai haiei dagokien diru kontuen gainean ere. Hartarako, eta beste neurri batzuen artean:

a) Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuari txostenak bidaliko dizkio bai bere barne jardunbidearen gainean eta bai bere ekintzen eta proiektuen garabidean izandako emaitzen gainean, urte hartako *Akordioan* zehazten den moduan.

Diruari buruzko txostenak sei hilean behingoak izanen dira.

b) Nafarroako Gobernuak eskatzen dion beste informazio osagarri guztia ere emanen du.

4.3. Bestelako konpromisoak:

4.3.1. Euskaltzaindiak *Akordio* honetan sortzen den Batzorde Teknikoari jakitera emanen dizkio ekintza planean aurreikusten diren jardueren garabide normala etetea dakarten gorabehera guztiak, eta dohainik emanen du programa eta ikerketa proiektuen txostenak eta oroit-idazkia interpretatzeko behar den laguntza guztia.

4.3.2. Euskaltzaindiak bere ikerketa eta azterlan zerbitzuetara sartzen utziko die hala nahi duten eta Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak aurretik hartarako ezarri dituzten baldintzak betetzen dituzten ikertzaile nafarrei.

4.3.3. Euskaltzaindiak zilegi izanen du Nafarroako unibertsitate publiko nahiz pribatuekin elkarlanean aritzea euskarari buruzko hizkuntza gaietako ikertzaileak prestatzen, unibertsitate horiek hala eskatzen badute beren errektoreen bidez eta, hala bide denean, kasuko *Akordioen* bidez.

4.3.4. Euskaltzaindiak zilegi izanen du Nafarroako Gobernuari bere zerbitzuak ematea kontsulta organo gisa euskarari buruzko gaietan, legeek eta Nafarroan indar duten beste xedapenek agintzen dutenaren arabera.

Bosgarren.—Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarengana bere gain hartzen dituen konpromisoak:

5.1. Nafarroako Gobernuak bere burua lotzen du arduraren hartzeko urteroko aurrekontuetan behar adinako dotazioa egon dadin Euskaltzaindiari Akordio honetan aurreikusten direnak gauzatu ahal izateko behar dituen laguntzak emateko.

5.2. Nafarroako Gobernuak bere burua lotzen du Euskaltzaindiak eskatzen badio Nafarroako Gobernuko funtzionarioak berari esleitzeko bi erakundeek Nafarroako euskarari buruz egiten dituzten lanetan aritzeko, eskaera hori aztertzeko.

Seigarren.—Prozedura

6.1. Hirugarren klausulan aipatu den egiturarekin, Euskaltzaindiak Akordio honetan aurreikusten den Jarraipen Batzordeari aurkeztuko dizkio bere behin-behineko aurrekontuak urteroko azaroaren 15a baino lehen. Dokumentu horri erantsirik, klausula hartan aipatzen den beharrezko informazio guztia ere aurkeztuko da.

6.2. Jarraipen Batzordeak, hurrengo urtarrilaren 20a baino lehen egin beharreko bilkura arruntean, arestian aipatu dokumentuok aztertu eta hurrengo urterako aurrekontu proposamena ezarriko du, aurrekontuan erabilgai dagoen diruaren arabera.

Halaber, zilegi izanen du lehendikako proposamenei beste berri batzuk eranstea.

6.3. Bai aurrekontu fondoa eta bai diruztatzen diren programa eta azpi-programak, zeinak beraz Euskaltzaindiak hurrengo ekitaldian zehazki bete beharreko obligazioak diren, alderdiek, eman daitezkeen dirulaguntzak zenbatekoak izanen diren behin betiko jakinez gero, beren gain hartuko duten elkarlanaren osagai izanen dira.

6.4. Urtero dirulaguntzen sortzapena honela egingen da, betiere kasuko administrazio tramiteek hartarako bide ematen badute:

– Dirulaguntza osoaren lehenbiziko erdia ekitaldi bakoitzerako laguntzak aitortzen direnetik hilabeteko epean.

– Beste erdia ekainean.

6.5. Lege indardunek agintzen dutenaren arabera, *Akordio* hau sinatu aurretik eta *Akordio* honetako klausuletan zehazten diren fondo publikoak jaso aurretik, Euskaltzaindiak bere zerga eginbeharretan egunera dagoela frogatzeko agiriak aurkeztuko ditu.

Zazpigarren.—Jarraipen Batzordea:

7.1. Akordio hau sinaturik, hilabeteko epean Jarraipen Batzordea, Akordioan ezarri dena behar bezala bete eta koordina dadin segurtatzeko.

7.2. Jarraipen Batzordeak honako kideak izanen ditu:

- a) Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, edo haren delegatua. Batzordeburu arituko da.
- b) Hizkuntza Plangintza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuko zuzendaria, edo haren delegatua. Batzordekide arituko da.
- c) Hizkuntza Garapen Ataleko burua edo haren delegatua. Batzordekide arituko da.
- d) Euskaltzainburua edo berak izendatzen duen ordezkari bat. Batzordekide arituko da.
- e) Euskaltzaindiaren idazkaria, edo berak izendatzen duen delegatu bat. Batzordekide arituko da.
- f) Euskaltzaindiaren diruzaina, edo berak izendatzen duen delegatu bat. Batzordekide arituko da.

Halaber, Euskaltzaindiak Nafarroan duen delegatuak ere zilegi izanen du bileretan parte hartzea, hitza bai baina botorik ez duela.

7.3. Jarraipen Batzordeak, *Akordio* hau koordinatu eta kontrolatzeko eginkizun orokorrez gain, honako eginkizun berariazkoak izanen ditu:

- a) Erabakitzea ea Euskaltzaindia hitzartutako lanak behar bezala eta epe barrenean egiten ari den.
- b) Nafarroako Gobernuko ordezkariak hala behar dela juzgatzen badute, haien iritzia jakinaraztea «corpus planning» orokorraren eta Nafarroari dagokionaren arloan dauden premia edo lehentasunen gainean.
- c) Nafarroako Gobernuak diruz lagundu dituen programa eta azpiprogrametako emaitzak argitaratzeari dagokion guztia proposatzea.
- d) Proposatzea urtean urtean Euskaltzaindiari esleitu beharreko aurrekontu fondoa zenbatekoa izanen den, *Akordio* honek agintzen duenaren arabera.
- e) Euskaltzaindiari esleitutako asignazioak garaiz eta behar den moduan paga dakizkion ardura hartzea.
- f) Bere arloaren barrenean, *Akordio* hau sinatzen dutenek dituzten esku-bide eta betebeharrak begira daitezen ardura hartu eta segurtatzea.
- g) Batzorde tekniko bat izendatzea Euskaltzaindiak aurkezten dituen txostenak eta urteroko balantzeak jaso eta aztertzeko.

h) Hala bide denean, proposamen berriak egitea.

7.4. Jarraipen Batzordearen eraketak balio izateko, kide gehienen quorum bat beharko da.

7.5. Jarraipen Batzordea:

Jarraipen Batzordeak ahal den guztietan aho bateko erabakiak hartuko ditu. Kide guztiak adosten ez badira, gehiengoz hartuko dira.

Berdinketa izanez gero, Batzordeburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

7.6. Urte bakoitzean gutxienez bi bilera egingen dira. Horiez gain, Jarraipen Batzordearen buruak bere oldez edo gutxienez bi kidek hala eskatuta, zilegi izanen du batzorde horren bilera ohi gainekoa eskatzea.

Zortzigarren.—Batzorde Teknikoa

8.1. Batzorde honek lau kide izanen ditu, Jarraipen Batzordeak izendatuak, *Akordia* sinatzen duten parte bakoitzeko bina. Batzorde horretarako, lanak bai teknikoki eta bai ekonomikoki ezagutzen dituzten ordezkariak izendatuko dira, programa eta azpiprogramei behar bezalako jarraipena egin ahal izateko.

8.2. Hona hemen Batzorde Teknikoaren eginkizun berariazkoak:

a) Bai urteroko ekintza planak eta bai Euskaltzaindiak aurkeztu dituen txostenak jaso eta aztertzea. Hartarako urtean gutxienez bi bilera egingen dira.

b) Hala behar dela juzgatzen den bakoitzean eta Euskaltzaindiaren Gobernu Batzordearen onespena dagoelarik, programa eta azpiprogrametako lan taldeekin bilerak egitea, eta besteak beste *Akordio*ko programa eta azpiprogramen ebaluazio behin behinekoa egin eta in situ urteroko balantzea zertan den aztertzea.

c) Urteroko balantzea aztertuko du.

d) Jarraipen Batzordeari aurkeztea beharrezkotzat jotzen diren informazio eta ebaluazio txosten guztiak.

8.3. Euskaltzaindiak zilegi izanen du, hala bide denean, nahi dituen alegazio guztiak aurkeztea Batzorde Teknikoaren txostenen kontra.

Bederatzigarren.—*Akordia* ezeztatzeko arrazoiak

Akordio hau honako arrazoietako batengatik ezeztatu ahalko da.

a) Akordia sinatu duten alderdiak hala adostuta.

b) Alderdietako batek arrazoioren gainean *Akordio* denuntziatzea.

Hamargarren.—Dirukopuruak itzultzea

Akordio hau bete ez edo emandako dirutza beste zerbaiterako erabiltzen bada, etengo dira paguak, eta ordu arte jasotako dirutza Nafarroako Gobernu-ko Diruzaintzara itzuli beharko da, tokatzen diren lege ekintzak eta zehapenak ezertan galarazi gabe. Dirutza horiek dirusarrera publikotzat hartuko dira lege ondorioetarako.

Akordio hau ez betetzeak sortzen dituen eskubide, kanon, tasa, zerga, konpentsazio eta kalteordainak Euskaltzaindiak pagatuko ditu, eta berak eman-
go ditu Akordioa gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak.

Hamaikagarren.—Akordioaren izaera

Akordio honek izaera administratiboa du, eta Jarraipen Batzordeari da-
gokio haren edukia interpretatzea. Interpretazio horren ondoriozko kontuak,
azken buruan, auzitegi eskudunek ezagutu eta ebatziko dituzte, administrazioa-
rekiko auzian.

Hamabigarren.—Akordioa kudeatzeko ardura

Unibertitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzari, *Akordio*
hau kudeatzeko arduraduna baita, honakoak dagozkie:

- a) Jarraipen Batzordearen bilerak deitzea.
- b) Batzorde Teknikoa zuzentzea.
- c) Euskaltzaindiarekin etengabeko harremanetan egotea *Akordioaren* ku-
deaketari buruz.
- d) Bileren aktak egitea, materiala zaintzea eta *Akordioaren* idazkaritza lan-
nak egitea.


Hamahirugarren.—Azkena

Hitzartu dena jasorik gelditzeko, eta alderdiek beteko dutela espresuki de-
klaratuta, orrialde guztietan sinatu eta errubrikatzen da dokumentu hau, hiru
aletan,

Iruñean, 2002ko ekainaren 27an.



Jesús Laguna Peña,
Nafarroako Gobernuaren
Hezkuntza eta Kultura kontseilaria



Jean Haritschelhar Duhalde,
euskaltzainburua